

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoak:

Txipa sortzeko materialak, alokatutako lokal batean gordeko ditugu. Lokal horretan bertan, txiparen programazioari ekingo diogu. Lokalean, hiru ordenagailu izango ditugu; bata, finantza-ariketak eguneratuta izateko (gure kontuen gardentasuna mantenduz), eta beste biak, programazio ariketan erabiltzeko. Mahai handi bat egongo da hemen, ordenagailuak jartzeko eta lan egiteko. Lokala, 60 metro karratukoa, 950€-ko alokairua dauka.



<https://www.idealista.com/inmueble/85471692/>

Baliabide intelektualak:

Web orri bat sortu dugu bezeroei gure enpresari buruzko informazioa emateko. Hortaz aparte, denda online bat sortu dugu ere, bezeroei gure produktua etxera eramateko. Gainera, kontaktuko telefono bat eskainiko diegu bezeroei, edozein arazo edo galdera konpontzeko. Patente bat

sortuko dugu, produktua gureganatzeko eta ideia inork ez kentzeko. Patente honek 793€ balioko du, gutxienez.

Giza baliabideak:

Lehenik, ekonomiaren arloan teknokrata den langile bat kontratatuko dugu, enpresaren finantza-ariketak eta azpi-kontratazioak eramateko.

Txipa edozein etxera edo zentzura eramateko garraio enpresa bat kontratatuko dugu 2 langileekin. Bestalde, txipak programatzeko beste bi pertsona kontratatuko ditugu. Hauei eskatuko dieguna, ingeniari informatiko ala robotikoaren ikasketak izatea izango da. Azkenik, laboratoriko analista ikasle bat kontratatuko dugu proiektuaren hasieran, analisiaren diagnostikoak gauzatzeko.

Finantza-baliabideak:

Eskura dugun diru kantitateari erreparatuz, kapital inbertsio txikia egingo dugu hasieran. Hortaz, S.A. bat sortuko dugu, 3.000€ko lehen ordainketa minimoa egin behar delako soilik. Hainbat gastu egingo ditugu, baliabide fisiko, intelektual, giza eta finantza baliabideetan. Taldekide bakoitzak 2.000€ jarriko ditu hasieran; beraz bazkideen ekarpenekin 10000€tako diru sarrerak lortuko dira.

Proiektua martxan jarri ahal izateko, hasierako inbertsioaz gain, hasierako hilabeteetan dirua beharko denez 30.000€ko mailegua eskatuko da 5 urteetan ordaintzeko.